

AZPEITIA

Plaza jendez gainezka espero da aurten ere Santio Eguneko Sagardo Lehiaketan

Sagardoaz gain, gazta, txekor edo hegazuze pintxoak, pilota partidak eta errektoriak izango dira egunean zehar

24.07.13 - 00:18 - :: ELI AIZPURI | AZPEITIA

Azpeitia festan murgilduko da ostegunetik aurrera. Santiyo Eguna, urteetan zehar Baserritarren Eguntzat izendatu dena ekitaldiz eta baserriko giro eta produktuez beteko da. Urtero legez plaza jendez gainezka izatea espero da. Izango da non gozatua. Berrogeitabatgarrenez Sagardo Lehiaketa egingo da, 12:00etan hasita. Landeta, Loiolatxo eta Goikabi elkarteek Udalarekin batera antolatzen duten lehiaketak sona handia du eta urtero Gipuzkoako sagardogile esanguratsuenak batzen ditu. Aurtengoan ere, Plazako arkupe denak sagardoaz hartuta izango dira, 23 guztira. «Sagardogileentzat Plaza garrantzitsua bihurtu da Azpeitia. Guztiek egon nahi dute bertan. Horregatik, oso zaila da, norbaitek hutsa egitea. Ahaleginak egiten dituzte denek hemen egoteko», adierazi du Sebastian Lizaso antolatzaileetako batek Sagardo Lehiaketaren aurkezpen ekitaldian.

Sagardogileak herrian izan daitezen ahaletin handiegirik ez da egin behar agian baina bada antolatzaileei zailagoa egiten zaien puntu bat, emakumeak epai lanetan aritzea, hain zuzen ere. «Aurten ere, saiatu gara emakumeak oholztan sagardo dastatzen ari daitezen baina azken orduan atzera bota zaizkigu». Hori dela-eta antolatzaileek, horretarako edo sagardoa zerbitzatzeko prest egon litezkeen emakumei dei egiten diete. «Egon badaude herrian sagardo kontuetaz asko dakiten emakumeak», esan dute, «bultzadaxo hori ematera eta festa honetan parte hartzea animatu nahi ditugu».

Ohi bezala, bi lehiaketa izango dira. Bata, ofiziala, epaimahaikideek emandako puntuazioaren arabera eta herritarrena bestea. Lehen hiru sailkatuek saria jasoko dute, txapela, estraineoak, eta kopa bana. Herritarren sariaren irabazleak Mikel San Juan tailagileak egindako lana eskuratuko du.

23 sagardogile dira guztira. Bakoitzak 11 kaxa zuku ekarriko ditu. Beraz, 2.200 botila inguru izango dira guztira. Edalontzi bakoitza 3 euroan ipiniko dute salgai eta behin hau hartuta nahi adina sagardo edateko aukera izango da.

Txekorra erreta

Sagardo festaren bezperatik hasita, txekorra erreko dute plazan Euskal Okela saltzeko baimenduta dauden herriko harakinek. Beloki, Eduardo. Matxin, Odriozola, San Sebastian eta Zabala harategikoak txandakatuz, eguerdirako presta izango dute okela gerturatutakoen gozamenerako. Txekorraren salmenta eta banaketa Azpeitiko Parrokiako Mixio taldearen eskutik egingo da eta bertan bilduko den dirua Afrikan martxan dauden bi proiektu laguntzeko izango da.

Era berean, parrilean erretako hegazuzea ere dastatu ahal izango da.

Beñat Lizaso, Julio Soto eta Sebastián Lizaso bertsolariek alaituko dute goiza eta Laja, Mikel eta Ezenarro trikitilariak eta dultzaineroek ere beren doinuak eskainiko dituzte. Goizean zehar baita ere, hamabosgarrenez, Gazta Lehiaketa egingo da. Idiazabal jatorriaren deituarren barne dauden artzai gaztek hartu ahal izango dute parte. 23 gaztagile inguru izango dira lehiaketa.

Ganadua ere ez da faltako eta eskualdeko buru dotoreenak bertan izango dira.

Cesar Valverde Saria

10:30etan hasita, Cesar Valverde txapelketako finalak jokatu dira Frontoi Txikin. Honakoak izango dira partidak. Benjamin-aurreko kategorian, Arellano Errastiren aurka lehiatuko da; Benjamintan, Eiguren eta Elozegik, Alonso eta Zigararen kontra jokatu dute; Alebinetan, Unanue-Seguroa bikotea ariko da Alberdi eta Aranbarriren aurka eta infantil mailan, Eiguren eta Aranguren neurtuko dira nor baino nor Iriarte eta Espositoren aurka.

Behin finalak amaituta, omenaldia eskainiko zaio Jesus Ruiz de Argandoña 'Keuttin'-i «30 urte luzez Azpeitiko esku pilota berpiztu, indartu eta mailarik gorenean ipintzen jakin duen gizona». Frontoiak izan dituen lanak utzi aurretik herriaren mirespena eta esker ona jasoko ditu Keuttinek eta bolondres onenaren saria ere jasoko du.

Egitaraua

Goizeko 9:00etan, Musika Bandaren eta Izarraitz Txistulari taldearen goiz eresia izango da. 10:30, pilota finalak jokatu dira. 11:00etan, eskualdeko ganadu erakusketak hasiko da eta XV. Gazta Lehiaketa ere bai. Eguerdian emango zaio hasiera Sagardo Lehiaketari. Arratsaldean, 16:00etan, haurrentzat jolas parkea izango da Olazko Amaren plazan. 18:00etan, kantu poteoari ekingo diote San Martin egoitzatik. Errekortarien tarte tarte izango da, zezen plazan, 18:30etan eta eguna amaitzeko, jainekin txaranga izang da kaleetan zehar. Bestalde, gaur, 21:15ean, Udai Musika Bandak kontzertua eskainiko du Olatzko Amaren plazan.

TAGS RELACIONADOS

plaza, jendez, gainezka, espero, aurten, santio, eguneko, sagardo, lehiaketan